

## **DONOSTIA / Liburutegiaren Egunaren harira, hiru egunetarako jarduerak antolatu dituzte**

Donostia Kultura, Tabakalera eta Koldo Mitxelena erakundeek bat egin dute Liburutegiaren Egunaren harira. Hala, datozen hiru egunetarako hainbat jarduera antolatu dituzte, Euskal Idazleen Elkartearen laguntzarekin. Bereziki digitalizazioari emango diote garrantzia, hau da, herritarrek liburutegietako bildumetara on-line sarbidea izateari. Hala, 'Ondarea sarbidea da'z jarri dute aurtengo lelotzat.

Zehazki, ostegunean izango da Liburutegiaren eguna, baina bihartik hasita hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak egingo dituzte hainbat udal liburutegitan. Nerea Txapartegi udaleko Kultura ordezkariak aipatu duenez, apirilaren 23ko Liburuaren egunarekin batera, Liburutegiaren eguna da liburuen garrantziaz kontzientziatzeko egun garrantzitsua. Txapartegik aipatu duenez, esaterako, Donostiako egunkari guztiak herritarrek konsultatzeko moduan daude dagoeneko, digitalizatuak.

Tabakalerako Ane Rodriguezek nabarmendu du Tabakalerako mediateka aro digitalean bertan sortu dela. Beraz, digitalizatu beharrean, digitalizazioan nola jaio dute erronkatzat. Aldundiko Garazi Lopez Etxezarretak, berriz, Koldo Mitxelena Kulturuneko edukiak 2001ean hasi ziren digitalizatzen aipatu du, eta momentuz, 2 milioi orri baino gehiago daude era digitalean. Azken batean, liburutegien etorkizunak kezkatzen dituela diote, eta elkarlanean etorkizuneko liburutegiek nolakoak behar duten aztertuko dutela azaldu dute.

### **LIBURUTEGIAREN EGUNA, JARDUERAK**

#### **Urriak 22, 10:00**

Analogikotik digitalera, ondarea begibistan

Aurkezlea: Jon Bagues, Eresbil

Hizlaria: Susana Araiz, Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburuzain burua  
Udal Liburutegi zaharra (Konstituzio plaza, 1)

Izen ematea: liburutegia\_alderdieder@donostia.org

Ondarearen kofrea zabaltzen : digitalizazioa Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegian.

Arantza Mariskal, Tabakalera-Ubik, Makusi: Tabakaleraren programaren edukiak kudeatzen

Francisca Pulgar, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi zerbitzuko arduraduna,  
Ondarenet eta Liburuklik: ondare digitalaren babes eta hedapena  
Arantza Urkia, Donostiako Udal liburutegiko zuzendaria, Liburutegi  
Digitalaren ibilbidea, XIX. mendetik XXI. mendera

## **Urriak 23, 19:30**

Hitzaldi irekia

Javier Leiva; ReputaciOn online: ¿Salimos bien en las redes sociales?  
Udal Liburutegi zaharra (Konstituzio plaza, 1)

## **Urriak 24**

Asun Balzolaren mundua: Haur Liburutegiko bilduma  
17:30

Ilustrazio tailerra 8-10 urteko haurrentzako

Aitziber Alonso ilustratzailearekin

Haur Liburutegi Nagusia (Fermin Calbeton, 25)

Izen ematea: haurliburutegia@donostia.org

19:00

Mahai-ingurua

Itziar Zubizarreta idazlea, Jone Arroitajauregi Galtzagorri, Mariasun Landa idazlea, Rosaura Marquinez, Haur Liburutegiko Elena Oregi.

Haur Liburutegia (Fermin Calbeton, 25)

\*Kultur etxeetako liburutegietan ipuinaren orduak eta haurrentzako jarduerak egingo dituzte.

Kultur Etxeetako liburutegiak

### **Aiete**

Urriak 24, 18:00

Oihulari klown, Alfonbra magikoa

4-8 urte

### **Egia**

Urriak 24, 18:00

Lur Korta, Izaskun Mujika, Galduztako ipuinaren berri

### **Ernest Lluch**

Bularretik Mintzora: Irakurketa kluba

Urriak 1, azaroak 5, abenduak 3, 10:30-11:30

6 hilabete - 3 urte bitarteko umeei eta gurasoei zuzendua

### **Intxaurreondo**

Urriak 23, 18:00

Oihulari Klown

### **Lugaritz**

Ikastaroa, Liburutegi Digitala, denboran atzera internet bidez

Urriak 23, 30 17:00

### **Okendo**

Urriak 23, 18:00

Madiber: Magia eta dibertsioa

4-100 urte